



229. zenbakia

MAIATZA 2023

pulunpe



Anue, Atetz, Basaburua, Imotz, Lantz, Odieta eta Ultzamako aldizkaria



Angurriak, basaranak,
murtxikak, granadak;
azal leunekoak,
tolesturabakoak.

Angurriak, basaranak,
murtxikak, granadak;
gorputz betekoak,
haragi sendokoak.

Horrelakoak dira
ertzik ezagutzen ez duten
desiraz puztutako
fruta anoak.

Eta horrexegatik ez dituzte maite
gertu dutenek zahartzaroa,
haien presentziak
lauskitzen dielako
itzul ezinezko gaztaro naroa.

Oihane Garmendia



Hautatu

3 hedabide

Komunitate
Helburu
Proiektu
Hizkuntza
Eskualde

bera

Km

komunikazioa

Esan Erran Irratia
107.9 FM



pulunpe

amezti

ARGITARATZAILEA AMETZA KULTUR ELKARTEA

PULUNPE SAREA

Euskara Zerbitzua, Gurutze, Patxi, Goizargi, Inma, Izaskun, Irantzu, Virginia, Josu, Arantxa, Maika, Itziar, Facebooken parte hartzen duzuenak, banatzaileak, etab... Barka lezaiguzue, aipatu ez zaituztegunok.

EMAILA

pulunpe@gmail.com

ZENBAKI HONETAKO KOLABORATZAILEAK

Sareeko taldekideez gain, Txurdan, Nabar, Denok bat elkarte, Eburne Gerendiain, Patxi Irurzun eta Laia Llop.

KOORDINATZAILEAK

Garazi Zabaleta eta Itziar Perez

TIRADA

1.700 ale

INPRIMATEGIA

Gertu

MAKETAZIOA

Zas Komunikazioa

AZALEKO ARGAZKIA

Amalur KDD, emakume txirrindularien topaketa Basaburuan. Egilea: MTB Basaburua.

LEGE GORDAILUA

NA 721/93

Inprimategira maiatzaren 10ean bidalia

AURKIBIDEA

04

Gaurko gaia. *Udal Hauteskundeak*

10

Albisteak.

14

Ingurumena. *Zuhaitzak*

13

Euskara erreza.

15

Kronika. *Denok bat jubilatuen elkarte*



16

Zer jan, hura izan. *Laia Llop*

20

Hauteskundeak. *Ametzak galdetegia*

23

Ardo Frexkoa. *Hitz arrotzak III*

24

Aspaldiko Kontuak. *Karrikan belarriak erne*

27

Herrian bertan, zergatik ez. *Izarpeko denda*

28

Kirola. *Esku pilota*

30

Ekimenak. *Leontzio Uharte eta Mariano Astiz*

32

Zer irakurri. *Ultzamako liburutegia*



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra



Udal Hauteskundeak

Maiatzaren 28an izanen dira udal eta foru hauteskundeak Nafarroan, eta udalerriz udalerrri aurkeztuko diren zerrendak ekarri ditugu orriotara. Udalez gain, Kontzejuetako buruak ere aukeratuko dira egun horretan, eta beraz, eskualdeko Kontzejuetako zerrendak ere argitaratu ditugu.

ANUE



AGRUPACION BURDINDOGI

1. MIGUEL ANGEL LARRAYOZ VIDAN
2. ROBERTO EL BUSTO EGOZKUE
3. MARIA ISABEL JESUSA OYARZUN AZPIROZ
4. AMAIA IRAZOZ CIA
5. LUIS MIGUEL APELLANIZ BIZCARRONDO
6. PATRICIA MARIÑELARENA MIQUELEZ
7. ITXASO OYARZUN ARAMBURU

Konzejuak

ARITZU

AUPA ARITZU

1. ANA MARIÑELARENA URDANIZ
2. ENEKO IRAIZOZ CIA
3. JOSUNE IRAIZOZ CIA
4. IVAN ECHEVERZ BALDA
5. ANGEL MARIA URDANIZ IRURITA

BURUTAIN

AGRUPACION BURUTAIN

1. JOSE JAVIER ZARO IRAOLA
2. MAITE SAN PEDRO ECHAVARRI
3. FERMIN MUGIRO ZARO

BURUTAIN TALDE INDEPENDENTEA

1. LEYRE SAN MARTIN ELIZONDO
2. ANA SAN MARTIN MOROTE
3. NIEVES RICO GOMIS
4. MIRIAN OJER URDIN
5. OIHANE SAN MARTIN VENANCIO

EGOZKUE

EGOZKUEKO BATASUNA

1. ARANZASU ALEMAN ARRATE

ETULAIN

AGRUPACION INDEPENDIENTE DE ETULAIN

1. RAUL PASCAL EGOZCUE

LEAZKUE

AGRUPACION INDEPENDIENTE DE LEAZKUE

1. OIHANE PÉREZ ORBARA



LANTZ



AGRUPACIÓN LANTZ

1. RUBEN BEUNZA ERICE
2. MARÍA ISABEL BALEZTENA LARRAZA
3. BENITA IRURITA LOYARTE
4. ASIER OLCOZ LARRAYOZ
5. MIKEL MARIEZKURRENA GOIZUETA

◀ Isabel Baleztenak, egungo alkateak, taldean jarraituko du hurrengo legegintzaldian

ATETZ



Atetzen, hutsik gelditu da kandidatura, ez baita zerrendarik aurkeztu. Hori horrela, egungo udal taldeak jarraitu beharko du datozen hilabeteetan, hauteskunde deialdi berri bat izan arte. Orduan inor aurkeztuko ez balitz, Nafarroako Gobernuak izendatutako talde kudeatzaile batek hartuko luke udaletxea eramateko lana.

Konzejuak

AROSTEGI

AZTA

1. LORENZO CAÑAMARES ALDAREGUIA

INDEPENDIENTE DE AROSTEGUI

1. ANDONI ELIZONDO EZCURRA

BERATSAIN

AGRUPACION INDEPENDIENTE DE BERASAIN

1. AITOR MARÍA EGOZKUE GUERENDAIN

BEUNTZA

BEUNZA DOS

1. ENEKO EUGUI SUBIZA
2. IRANZU AZPIROZ ERBITI
3. SILVIA TORAL USUNARIZ

BEUNZA UNO

1. MIKEL MARTIN GARIJO
2. ALBERTO SARASIBAR CIGANDA
3. ARANZAZU GONZALEZ CENOZ



Udal Hauteskundeak

BASABURUA



EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

1. SANTOS ETXEGIA ORONoz
2. JULEN BEUNZA ARANO
3. ALAIA ETAYO ORONoz
4. MICAELA ELIZALDE ELIZALDE
5. IKER ISIEGAS GARISOAIN
6. JOSE JAVIER AUZA ALSUA
7. MARIADEL MARANSORENASALA (Independiente)

Ordezkoak

1. AMAIA RECONDO AZPILICUETA
2. IRATI BARBERENA COCERA
3. MIREN EDURNE ARRAZUBI LABIANO

Konzejuak

ARRARATS OTSOLA

1. LUIS MANUEL ARANGOA RIEZU
2. MARIA CARMEN MARIEZCURRENA UNANUA
3. YOLANDA ARRIBAS GIMENO
4. MIREN JOSUNE RIPALDA ZUBIETA
5. MIGUEL ANGEL OSCOZ ARCE

BERUETE IREBER

1. IÑAKI LÓPEZ OSINAGA
2. JUANA MARÍA OCHOTORENA GALARZA
3. MARTÍN MARÍA ETXARRI ETXEGIA
4. ASCENSIO INDACOECHEA ARANGOA
5. XABIER ARRARAS ARANGOA

ITSASO UNTZATEGI

1. MARIA ISABEL ILARREGI MANJARREZ

GARTZARON LAUXTI

1. OIER LEGARRA BEUNZA
2. AMAIA LEGARRA BEUNZA
3. JOSUNE JUANENA MARIEZCURRENA
4. JOSEBA SATRUSTEGI TELLECHEA
5. SANTIAGO ESPINAL TELLECHEA

IGOA ISISTI

1. IBAI IRIARTE ARIZTIMUÑO
2. IRATI MARTICORENA ARBILLA
3. MARIA BEGOÑA IRIBARREN GOÑI
4. MARIA LUZ NAGORE LEOZ
5. MARIA TERESA REYES AYERRA

JAUNTSARATS OIHANZABAL

1. PELLO MIRENA ALSUA ARISTEGUI

IHABEN IHABENGOAK

1. MARÍA GORETTI BEUNZA MARIÑELARENA

UDABE-BERAMENDI ERLAIN

1. IMANOL BIURRARENA BARRENETXEA
2. MARIA PILAR MAYORA GORROCHATEGUI
3. INMACULADA SONCEPCION FERNANDEZ VICUÑA
4. JESUS MARIA ALVAREZ SARASOLA
5. FRANTZISKA URRITZA SATRUSTEGI

OROKIETA-ERBITI AIZARBIL

1. JESUS MARIA BALDA PEREZ
2. JOSE ANTONIO SANCHEZ LORENTE
3. NEREA OIZ MARINA

OLA

1. JOAQUÍN MARÍA ARMENDÁRIZ TELLETXEA
2. MARTÍN PERURENA BELTZA
3. MIKEL TELLETXEA ARREGUI
4. DAMARIS USED RUIZ



IMOTZ



EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

1. ALFREDO ALZUETA UNZUE
2. IDOIA JUSUE MARTIARENA
3. HODEI ARADA GOYALDE
4. JOSE ANGEL ITURRALDE VILDARRAZ
5. MARIA TERESA AYESTARÁN OSINAGA
6. DAVID IBAÑEZ LACRUZ
7. PATXI XABIER ITURRIOZ GARMENDIA

Aldaketa gutxi batzuekin, EH Bilduko taldeak hautagaitza errepikatuko du aurten. Buru, egungo alkatea, Alfredo Alzueta Unzué.

Proiektuari dagokionez, batez ere bi arlo nabarmendu nahi izan dute: "Tokiko maparen erreforma finkatuko dugu, Mendialdeko eskualdean sartzearen ondorioz. Honekin lotuta, badugu Tokiko Agenda 21eko proiektu bat. Gainera, energia komunitateen ezarpena bultzatu nahi dugu".

Konzejuak

ETXALEKU

AZKORREA

1. LUIS LARREA BOZALONGO
2. JOSUNE BALEZTENA
ALDAREGUIA
3. JOAQUIN MARÍA ANTSO LEOTZ
4. HODEI ARADA GOYALDE
5. TXOMIN SANTIAGO YUBERO
SANZ

ERASO

MALAUN

1. ALAZNE FERNANDEZ DE
MUNIAIN LOMILLOS

GOLDARATZ

ELKARTUZ

1. JOSU OLLO ITURRALDE

LATASA

TUXURI

1. MARÍA BELEN GÓMEZ OREJA

MUSKITZ

ANGAITZ

1. VIRGINIA SARASA ERICE

OSKOTZ

OSKOZKO TALDEA

1. MARIA ANTONIA IRIBARREN
ALDAREGUIA
2. MARIA JOSE IRIBARREN
ALDAREGUIA
3. IÑIGO ARANA HERNANDEZ
4. PEDRO MARIA CONDE ARBILLA
5. JUAN MIGUEL ARTAZCOZ
SAENZ DE ALBENIZ

URRITZA

OSKOTSETA

1. PEDRO ALDAZ AUGUSTO

ZARRANTZ

KAPITXURRIETA

1. DAVID IBAÑEZ LACRUZ



Udal Hauteskundeak

ODIETA

EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)



1. ANE MIREN BUITRON ZAZPE
2. JUAN PEÑALVER HERMIDA
3. ENRIQUE GORRIZ ELIZALDE
4. ITSASO OLAGUE LARRAYA
5. ZIRO AZKARATE GANUZA
6. VIOLETA TARAZAGA BOUDON

7. JESUS MARIA IZURDIAGA OSINAGA

Ordezkoak

1. OIHANA ELCANO MARIECURENA
2. EDURNE GUERENDIAIN BIEC

ODIETAKO ELKARTE INDEPENDENTEA



1. ALBERTO JOSE URDANIZ ELIZONDO
2. ANNE OYARZUN DOMEÑO
3. OIHANE ORRIO REY
4. IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ
5. CAROLINA AZANZA MONTALVO

6. ANDREA ERICE CORTEA
7. LETIZIA ALTUNA CUELI

Ordezkoak

1. RAQUEL ARRAZTOA ARRECHEA
2. MIKEL GUERENDIAIN AZPIROZ

Konzejuak

ANOTZIBAR

AINGIRITURRI

1. DIONISIO ARADA CALLEJO

ZIAURRITZ

ARANEKOA

1. JUAN PEÑALVER HERMIDA
2. MARÍA VICTORIA LARRAYA HUARTE
3. NURIA AZCARATE PALACIOS

ZIAURRITZ AURRERA

1. MAITE LARRETxea ZILBETI
2. ION LARRETxea ZILBETI
3. SAIOA MUÑOZ VIZCAY
4. IÑAKI GUERENDIAIN AZPIROZ
5. RODRIGO ELCANO VIZCAY

GASKUE

ARGAIN

1. EUSEBIO ORRIO IRAIZOZ
2. MARIA LARRAÑETA OYARZUN
3. JESUS JAVIER URDANIZ ELIZONDO
4. AMAYA CIGANDA OYEREGUI
5. JOSE JAVIER LOPEZ MARIÑELARENA

GELBENTZU

GELBENTZU AURRERA

1. ALFREDO IRURE IBERO

GENDULAIN

GUENDULAIN DE ODIETA

1. MARÍA ARANZAZU AZNAR GOÑI

LATASA

ORITXETA

1. JUAN IGNACIO ELIZONDO OSINAGA

ERRIPA

ERRIPA BETI

1. LETIZIA ALTUNA CUELI
2. MIREN BAKARNE IRAGUI OLLO
3. SAIOA MORRONGO OYARZUN
4. MARIA VIRGINIA IRAGUI OLLO



ULTZAMA



EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU)

Egungo alkateak EH Bilduko zerrendaren buru izanen da maiatzeko hauteskundeetan.

“Ezinbestekotzat jotzen dugu bailaran lan eta bizi ahal izateko etxebizitzaren zein lan aukerak sortzeari bideratutako proiektuak gauzatzea. Bukatzear dagoen legealdi honetan, honezkero,

inbertsio handiak egin ditugu poligonoa eraberritzeko eta lursail berriak eskuragarri jartzeko. Eta etxebizitzaren alorrean, udalak etxebizitza babestu/tasatuak eraikitzeke lurzorua izateko lehen pausuak ere onartu dira berriki. Norabide horretan sakontzea da erronka nagusietako bat.

Bestetik, ezin aipatu gabe utzi egungo gizarte eredutik sortutako mundu mailako krisi klimatiko zein ekosozialak, gure bailaren ere, eragin nabarmenak dituen, lehentasunezkoa neurriak planteatzea dira: Energia Komunitateen sorrera bultzatzea, autokontsumoa bultzatzeko sistema berriztagarrien eraikuntza zergetan hobariak, bertako ekoizle eta zerbitzuen indartzea...”

ZERRENDA OSORIK:

1. MARTIN PIKABEA AGIRRE
2. IZASKUN ANDUAGA ETXEBERRIA
3. IKER ISASI ALEMAN
4. JOSU LARRETxea LAZKANO
5. EKAITZ ASTIZ MARTINEZ
6. YAIZA MENDIBE GASKUE
7. JOSE MARI IBARRA ETXENIKE
8. LEIRE ETXEBERRIA SAMPEDRO
9. IÑAKI ARIZTEGI BARBERENA

Ordezkoak:

1. ANA MINDEGIA ILARREGI
2. JESUS MARI GOIENAGA TORNARIA

Konzejuak

ARRAITZ-ORKIN

ARRAITZ-ORKIN-BENTAS

1. AITOR GUEL BENZU ESCUDERO
2. UNAI REDÍN BARBERENA
3. IMELDA MACAYA ZANDIO
4. MIGUEL ANGEL HERNANDORENA PEREZ
5. MIREN LARRAINZAR EZKURRA

GORRONTZ-OLANO

INDEPENDIENTE DE GORRONZ

1. PEDRO ZUNZARREN BAIGORRI

GERENDIAIN

GERENDIAINGO TALDEA

1. JUAN GABRIEL ROS SAGARDÍA
2. ELENA TORNERO RECASENS
3. MARTÍN MARIA PICABEA AGUIRRE
4. MIKEL BEUNZA URTASUN

ILARREGI

LARTZABAL

1. AMBROSIO MARÍA ELIZALDE URTASUN
2. AITZIBER RAZQUIN JACA
3. MIREN BELATE SAN JULIAN ERVITI
4. IÑIGO URDANIZ OSINAGA
5. GORKA OSINAGA ASTIZ

LARRAINTZAR

AGRUPACION ALDAPA

1. MARÍA ARANTZAZU RECALDE ARRECHEA
2. JAVIER ECHANDI RECALDE
3. ANTONIO GASCUE LARRAYA
4. JUAN MARÍA RECALDE ARRECHEA

LIZASO

LIZASOKOAK

1. DAVID IRAIZOZ OLIVA
2. JULEN ANCIZU MARCKERT
3. IÑAKI ARIZTEGUI BARBERENA
4. FRANCISCO JAVIER RAMOS MORENO
5. GURUTZ URZELAT IRIBARREN

URRITZOLA-GALAIN

URRITZOLAKO TALDEA

1. IÑAKI EZKURRA OSACAR
2. MARIA ROSARIO LEGARREA RAZQUIN
3. MARIA LOPEZ LEGARREA
4. ANDER OYAREGUI MUNARRIZ
5. IMANOL LANDIRIBAR GOYENECHÉ



Etxalekun bi beatoen aldeko elizkizun-omenaldia

Joan den urriaren 25ean beatifikatu zuten **Zapatiñeneko** semea zen Pascual (Jose Joaquin) Erbiti Intsausti 1936ko abuztuaren 21ean fusilatu zutena Madrilen, F.A.I.koak (Jose Joaquinen bizitzaz idatzi genuen Pulunpen, 221. zenbakian)

Herrian beato bat izatea ez da gutxi, eta omenaldi bat merezi zuen merezi zuenez gure anaia honek. Eta hala, **Dorrotoko** etxeakoandrea den Doris Scheneider Mendia ibili zaigu zirika han eta hemen zerbait egin nahiez eta, azkenean, antolatu ere bai elizkizun-omenaldi eder bat. Martxoaren 18an, goizeko hamabietan eman zuen meza Artzapezpikuak, Francisco Perez Gonzalez jaunak beste apez hauekin batera:

Mendialdeko bikarioa: Mikel Gartziaandia.

Araitx-Leitza-Basaburua eskualdeko hiru apezak: Ignacio Azkoaga, Etxalekuko Parrokoa, eta Jesus Sotil, beteluarra eta Santi Garisoain.

Joxe Mari Aleman, gure alderdiko hainbat tokitan parroko izandakoa.

Eta Pako Beloki Perkatx, Etxalekuko **Beltranekoa**, urte luzez Zimbabwen misiolari izandakoa.

Inportantea den guzia esan behar bada, aipatu gabe ez dugu utziko omendutako bigarren martiriaren izena:

Aniceto Lizasoain Lizaso, Irañetako semea, **Txinenea** (Txinerena) etxeakoa. 59 urte zituen eta Jose Joaquin bezala erredentorista eta komentu berean zeuden gerra aurrean. Etxalekuarra bezala erredentorista, eta hil, biak ere, egun beretsuetan hil zituzten, Pascual abuztuaren 17an eta Aniceto abuztuaren 21ean, ustez.

Beatifikatu Etxalekukoarekin batera egin zuten.

Eta mezatakoan erabili ziren hizkuntzez, erdara asko sartu zela, sermoia, ebanjelioa eta beste. Idatziz gelditu dadin jarri dut hau.

Meza ondoren, eta jendeak elkar agurtzeko eta hizketatzeko nahiko denbora hartu ondoren, batzuek etxera, eta beste batzuek bazkaltzera herriko ostatura, martirien ahaideak, herritarrak, apez gehienak ... Denetara 53 lagun bildu zen bertan.

Bazkari ondoren atzenduxe dagoen esaera zahar hau erabili izan da:

Egin dugu bazkari,

Eskerrak Jaunari.

Oraingoan esan beharko dugu eskerrak Dorisi, bere kargu izan baitzen gastu guzia. Eskuzabala izaki **Dorrotoko** etxeakoandrea!!!



Ezkerretik eskuinera: Asuncion Beloki, **Eskolazarrek**oa. Filo Iribas Erbiti eta Juan Erbiti Aldaregia, **Zapatiñenekoak**; Obispoa; Doris Scheneider Mendia, **Dorrotoko** etxeakoandrea, eta Ignacia Erbiti Irurita, Beuntzako **Zurgiñeneko** etxeakoandrea.



Beuntzako frontoia estali eta margotu dute

Teilatua jarri dute Beuntzako frontoian. Nafarroako Gobernuak diruz lagundutako lanak izan dira, eta, gainera, auzolanean, inguruko bazterrak txukundu dituzte. Urrian hasi ziren lanak Tuferreta familia-enpresaren eskutik, eta neguan ere horretan aritu dira. Mikel Eugi, Beuntzako alkatea: "Margotzea eta ingurua txukuntzea auzolanean egin genuen, herritarren artean; eta, egia esan, oso-oso pozik gaude jendearen erantzunarekin". Kontrakantxan, gainera, marrazki bat egin die Iker Uribe ilustratzaileak.



Beuntzako frontoia berritua

Ultzamako kuadrillen eguna, ekainaren 17an

Kuadrillen eguna antolatzen ari dira Ultzaman. Ekainaren 17an izanen da, eta, horretarako, hainbat ekitaldiko egitaraua prestatu dute. Ultzamako gazteek antolatutako ekimena da, batez ere Ultzamako Udalak, eta bestelako tokiko enpresek babestuta.

Herri kiroletako desafio probarekin hasiko da eguna, Larraintzarko frontoian. 10:00etatik aurrera, 11 partaidek osatutako hamar talderen arteko norgehiagoka izanen da. Lokotx biltzea, txingak, zaku altxatzea, korrika, trontza, ingudea eta aizkora izanen dira probak. 12:30ean banatuko dituzte irabazleen arteko sariak.





Udaberri hasiera oparoa

Apirilean egindako ekintzak kontatzera gatoz oraingo honetan, hilabete oparoa izan baitugu. Kantabriara egindako bidaia aipatuko dugu lehenik, Arkupeak elkartearekin batera egin genuena apirilaren 17tik 20ra bitartean. Arkupeak taldearekin egiten dugun lehenengo bidaia izan da, eta oso pozik itzuli dira haiekin egon direnak.

Ettxera iritsi orduko udaberriko festa izan genuen, apirilaren 22an. Festa honetan, ohitura denez, 85 urte betetzen dituztenei eta urrezko ezteiak betetzen dituztenei omenaldia egiten zaie, eta horrela ospatu genuen, Alkozko elizan. Meza ondoren, oroigarri bana eman zitzaion eta denon zorionak jaso zituzten.

Ohorezko bazkidean aurten egiten direnen kasuan, Alkotz, Egillor, Igoa, Iraizotz eta Lizasokoei eman zitzaion oroigarria. Aurpegi alaiak ikusi genituen oparitxoak jasotzerakoan. Bukaeran, Alkozko kantariak eskainitako kanta ederra eta txalo zaparrada omendu guztientzat entzun ondoren, autobusa hartu genuen bazkarira joateko.

Almandozko Beola jatetxean genuen bazkaria, beti bezala, lehen solairua guretzat egokitua genuen. Bazkari luze eta bikaina egin ondoren, dantzarako aukera ere izan genuen, Jose Angel akordeoilariak jotzen zituenak jarraituz.

Giro ezin hobea eduki genuen, elkartearen festak merezi duen bezalakoa, nola ez? Elkartzeak eta hainbeste lagun biltzeak poz handia eman zigun. Datorren urtean, berriz!!

Arratsaldeko zazpi eta erdietan bukatu genuen eta han genituen hiru autobusak, gure zain. Norberak zegokiona hartu eta etxera itzuli ginen, batzuk presaka, hurrengo egunean bidaian abiatzen zirelako.

Biharamunean, Extremadurarako bidaia abiatzen zen, eta ospatzekoa da pandemiaren geroztik astebeterako lehendabiziko bidaia izan baita, Benidormekoa kenduta. Talde polita bildu zen, gainera: 34 lagun, neurri egokia, elkarrekin ongi pasatzeko.

Eguraldia bikaina izan da eta hainbat leku eta gauza ikusteko aukera izan da. Batzuei motza gertatu zaie, ez da seinale txarra!!

Hariari jarraituz, aurreko alean aipatzen genituen Portugalera joateko asmoa. Bada, eskatzen zen kopurua gainditu denez, gauzatuko da, bai, joanen gara Portugalera. Ordainketa garaian gara. Ekainaren 1etik 6ra bitartean izanen da.





Bukatzeko aipatuko dizuegu maiatzerako prestatua dagoena: Astizko Mendukiloko kobak ikustera joanen gara eta larrialdiko tailerrak izanen ditugu, desfibriladorearen erabilera erakusteko, Jauntsaratsen eta Larraintzarren.

Hauei eta beste hainbat gauzei buruz, datorren alean jarraituko dugu kontaketa. Bitartean, osasuntsu egotea opa dizuegu.




Denok Bat
Jubilatuaren Elkartea



Kantabriara joandako taldea Miguel Angel Revilla presidentearekin. ▲



Urrezko ezteiak egiten dituztenak. Iraizotz, Lantz eta Auzakoak. ▲


Carrefour
express
Zugandik gertuago

**¡Zure zain
gaude!**

Erp. Gulina km. 12'8
31867 Aroztegi - Atezko Ibarra
IZARPE KANPINA

ASTELEHENETIK OSTIRALERA
9'00 - 20'00
LARUNBATA ETA IGANDEA
9'00-14'00 / 16'00 -20'00


CAMPING - KANPINA
IZARPE
ULTZAMAKO ATEA - PUERTA DE ULZAMA



Zertan laguntzen digute zuhaitzek?

Zuhaitzen inguruko bitxikeriak ekarri dizkigu hilabete honetan Edurne Gerendiainek, El Correo egunkariko Josemi Benitezen artikulu batean oinarrituta. Izan ere, zuhaitzek gauza asko egiten dituzte pertsonak laguntzeko.

Zuhaitzak udaberrian eta udan bakarrik hazten dira, 2,5 zentimetro gutxi gorabehera. Munduan hiru bilioi zuhaitz inguru daude, 70.000 mota ezberdin. Pertsona bakoitzeko, beraz, 422 ale. Espainiar estatuan, 7.500 milioi zuhaitz baino gehiago daude, 150 biztanle bakoitzeko. Hil ere egiten dira, 28.000 zuhaitz minuturo; besteak beste, mozten direlako, edo suteen eta gaixotasunen ondorioz.

Euskal Herrian, haritza dugu sinbolo nagusia. Haritzak 2.000 urte bizi daiteke. Haritz mota ugarietak ametza, haritz kandugabea eta ametz ilaunduna dira. 50 urtetik gorakoek bakarrik sortzen dute ezkurra, eta zuhaitz bakoitzak, gainera, hiru tona hosto askatzen ditu urtean. Orbela funtsezkoa da lurzoruen emankortasunerako.



▲ Zuhaitzik altuena sekouia bat da

Zertan laguntzen dute gizartea?

Haiei esker hartzen dugu arnasa

Fotosintesiaren bidez, hostoek karbono dioxidoa, argia, ura eta mineralak xurgatzen dituzte. Aldi berean, azukreak ere sortzen ditu. Horrela, zuhaitza elikatzen da. Prozesu honetan, hostoek oxigenoa eta ur-lurruna askatzen dituzte, guk arnasten duguna.

Minbizitik babesten gaituzte

Zuhaitzen sustraiek gizakiondako kantzerigenoak diren partikulak xurgatzen dituzte, hala nola kadmioa, merkurioa edo artsenikoa.

Klima-aldaketari aurre egiten diote

Atmosferako karbono dioxidoa xurgatzen dute eta biomasan finkatzen dute, lurzoruan, sustraian, enborrean eta hostoetan. Berotegi-efektua sortzen duen gas nagusietako bat da karbono dioxidoa. Zuhaitz bakar batek 150 kg karbono dioxido xurgatu ditzake urtean, eta, aldi berean, oxigenoa itzultzen du atmosferara.

Pinu batek, urtean auto batek 35.000 km eginda sortzen duen CO₂ kopurua xurgatzen du.

Beroari aurre egiten laguntzen dute

Planetaren berotzea mugatzen dute. Esate baterako, hirietako temperatura 2°C eta 8°C artean jaisten dute. Ez hori bakarrik,

airea garbitzen dute eta, gainera, zuhaitzez inguratutako etxebizitzaren energia-kontsumoa txikiagoa da.

Lehen zuhaitza: Gingko biloba duela 270 milioi urte sortu zen. Hiroshimako leherketaren ondoren bizirik atera zen zuhaitz bakarra izan zen.

Altuena: 115,55 metroko sekouia, Kalifornian.

Zaharrena: Pika bakartia, 9.558 urtekoa, Suedian. Old Tjikko du izena eta Fulufjället parke nazionalen dago, Suediako Dalarna eskualdean.



Old Tjikko, bizirik dagoen zuhaitzik zaharrena, Suedian ▲

Maiatza, baratze garaia!

Udaberria ailegatu zen. Argia eta txori festa. Kukua **aditu** genuen oihanean. **Enarak** bueltatu ziren gure herrietara.

Eguna **luzatu** du. Lurra **epeldu** da. Baratze garaia da!

Baratzea prestatzeko momentua da: belarrak moztu, lurra **irauli**, xehetu, **harrotu**, **ongarritu**.

Lurra prest dago: **harro** eta **epel**!

Orain zer egin behar dugu? **Landatu** edo **erein**!

Patata, piperra, leka, banabarra, tipula, xerba, kuia, kuiatxoa, tomatea, erremolatxa, letxuga...

Aitzurra hartu eta **ekin**!

Baratzea martxan dago! Euria eskas bada, **ureztatu** behar!

Barazkiak aurrera doaz...belar txarrak ere!

Altxurkoa hartu eta **jorratu**!

Eta fundamentua egin baduzu....**uzta jasoko** duzu!

Eta zuk, baratzetik baduzu?

Zer behar du baratze batek?

Baratzeak lur ona, argia eta ura behar du.

Eta lan eta dedikazio pixka batekin, baratzekeo fruitu goxoak janen dituzu.

Animo!



Nabar

Hiztegia

Baratzea: Huerta

Garaia: Tiempo

Aditu: Entzun, oir

Enara: Golondrina

Luzatu: Alargar

Epeldu: Templar

Iraili: Darvuelta

Xehetu: Deshacer

Harrotu: Levantar, soltar, ahuecar, mullir (la tierra)

Ongarritu: Abonar

Harro: Suelta (la tierra)

Epel: Templada

Landatu: Plantar

Erein: Sembrar

Aitzurra: Azada

Ekin: "manos a la obra"

Ureztatu: Regar

Barazkiak: Frutos de la huerta.

Altxurko: Azada pequeña

Jorratu: Escardar

Uzta: Cosecha

Jaso: Recoger

Behar du: Necesita

Lurra: Tierra

Argia: Luz



▲ Baratzea



Udaberria, trantsizio garaia

Udaberri hasiera trantsizio garaia da orokorrean, eta beraz, baita gorputzean eta elikaduran ere. Aro honetan gorputza laguntzeko zein elikagai apropos ditugun ezagutuko dugu kolaborazio honetan, baita horiekin prestatzeko errezeta gozoak ere. Beti bezala, Laia Llop elikaduran eta medikuntza txinatarrean aditua den aizaroztarraren laguntzarekin.

Aurreko kolaborazioetan bezala, honetan ere, udaberri garaian gehien sufritzen duen gorputzeko organoaren berri eman digu Llopek. Kasu honetan, gibela eta behazun-xixkua (vesícula biliar) dira gorputzeko atal horiek. "Gibela zaintzeko momentua da oraingoa", gehitu du irratiko kolaborazioan.

Gorputzeko atala, gibela

Izan ere, kanpora zabaltzeko, hedatzeko garaia da udaberria: landareei begiratzen badiegu, ikusiko dugu naturan orain hasten dela dena topera ateratzen,

hostoak, loreak... "Kontua da, horiek guztiak sustraietatik ateratzen direla, dena orekatua dutelako, neguan deskantsua eta hibernazioa egitetik datozelako". Pertsonok ere, oreka hori lortzera bidean, negu garaian deskantsua eta barrura begirako tartea hartzea litzateke egokiena, udaberriko pizkunde horretara orekatuta iristeko. "Neguan ongi deskantsatzetik bagatoz, hibernazioa egitetik, ongi elikatzetik... garai hau kanpora zabaltzeko, sormenerako eta erabakiak hartzeko aproposa da".

Emozioa, haserrea

Esan bezala, udaberrira orekatuta iritsiz gero ez dugu arazorik izanen, baina, zein da kontua? Bada, askotan neguan ez dugula garaia dagokiona egiten, urte osoan gauza bera egitera ohituta gaudelako. Kasu askotan ez diogu deskantsurako eta atsedenerako tarterik eman gorputzari, gibela ez dago hain ongi zainduta, eta horrek ondorioak dakartza.

Zeintzuk? Bada, haserrea, sumindura edo frustrazioa sentitzea.





Zein jaki dira aproposak garai honetan?

Gorputza eta emozioak orekatzera bidean, badira udaberri garai honetarako aproposak diren zenbait elikagai. "Elikaduran ere, naturari begiratzen diogu: natura gora doa, berde, fresko... bada, elikaduran ere horidator, orainez da sustraian edo gatzaren momentua, bagentozen janariari berotasuna ematek, bada, orain aldaketa bat egon behar da", dio Llopek. Gakoa pixkanakako trantsizio bat egitean datza, gatza gutxitzen joatea, eta beroan prestatutako jakiak eta egositakoak uzten joatea. "Hosto berdeak, klorofila duten osagaiak, salteatu eta baporean egindako jakiak... horrelakoak sartzen hasiko gara". Entsaladen garai aproposa ere orain hasi da, eta beraz, pixkanaka geroz eta

entsalada gehiago sartzen joanen gara gure dietan.

"Udaberriko zaporeari dagokionez, zaporegarritasun osoi honetakoa, beraz, elikagai garrantzak hartzea oso garrantzitsua da. Esaterako, limoia". Entsaladak prestatzeko orduan, adibidez, limoi txorrotada bat erabil dezakegu. Barazki zukuak ere aproposak dira aro honetan, eta berdin fruta: marrubiak, laranjak...

Hosto berdeak jatea ere garrantzitsua dela dio aizaroztarrak: zainzuri berdeak, letxuga, espinaka, txikori belarra, orburuak, ilar eta baba freskoak, landare basatiak... "Oso interesgarriak dira horiek ere, landutakoak baina indartsuagoak direlako".



▲ Usin krema

Gaurkoan, usinarekin hiru errezeta

Usinak jateko oso momentu ona dela azaldu du Llopek, gibelerako eta odolerako oso propietate onak baititu. Udaberrian aurrera goazen heinean, infusioan ere har daitezke usin hostoak, baina gaurkoan, beste bi modutan prestatzeko errezetak ekarri dizkigu Llopek:

Krema

- 1) Usinaren lehendabiziko hosto bigunak bildu.
- 2) Porrua eta tipula pixka bat sueztitu (potxatu), eta patata bat gehitu.
- 3) Guztia egosi
- 4) Azken hamar minutuak falta direnean, usin eskukada bat gehitu
- 5) Barazki salda edo esne pixka bat gehitu diezaiokegu, eta dena irabiatu. Mineral askoko krema gozoa geldituko zaigu.

Tortilla

1. Usina 2-3 minutu egosi
2. Ura ongi kendu, eta tortilla bat egin

Usin pestoa

1. Gordinean, ur hotzetan utzi usina tarte batez
2. Usinarekin soilik, edo albahaka pixka batekin nahasita egin daiteke pestoa. Fruitu lehorrekin (intxaur, pinazi, hur...), baratxuri ale batekin, pamesano gaztarekin eta limoi zuku txorrotada batekin nahasi
3. Guztia irabiatu. Pasta laguntzeko edo tostada batean jartzeko erabil daiteke



Imotzen, Latasako elizatarian, San Migel



Amalur KDD



Aralarko santua Erason



Irurtzungo folk kontzertuan, erasoar taldea



Ultzamako jubilatuek yoga klasean



Emakume talde ederra batu zen Basaburuan mendi bizikletaz ezagutzera

Zorionak Zorionak !



Zorionak, Ihen!



Zorionak Urko!




Zorionak, Naroa!



Zoriondu zure laguna
Pulunpen!
pulunpe@gmail.com



Larraitzarko ikasleak, Erasmus+ programan



Hauteskundeak

Zein asmo dituzte udal hauteskundeetara aurkeztutako taldeek euskararen alorrean?

Ametza kultura elkarteak Ultzamako zazpi udalerrietan udal hauteskundeetara aurkeztu diren zerrendei galdetegi bat bidali die. Hemen argitaratu ditugu jasotako erantzunak.

Galderak

- Eskola giroan erabiltzen den euskara, gutxitzen ari dela diote datuek. Nola ikusten duzue egoera eta zer planteatzen duzue udaletik egitea?
- Gizartean ere gero eta gutxiago erabiltzen dela diote, batez ere ezagutza faltagatik. Zer planteatzen duzue giroari buelta emateko?
- Udalak antolatzen dituen ekitaldietan, nola planteatzen duzue euskararen erabilera?
- Udalaren aldetik, euskararen aldeko neurrietan, nolako ekintzak, partaidetzak eta aurrekontua... aurreikusten dituzue?
- Ametza Kultur Elkarteak, eskualdeko Pulunpe, Esan Erran eta Amezt.eus hedabideen kudeatzailea denez, nolako harremanak izan nahi dituzue beraiekin?, hedabideen kudeaketa lanetan nolako antolakuntza eta dirulaguntza ematerakoan nolako politika aurre ikusten dituzue beraiekin?.

Basaburuko EH Bildu

“

• Egoera kezkagarria da, eta ez da oraingo kontua. Eskola Kontseiluan aipatu da eta bolo-bolo dabilen kezka da. Euskara Batzordetik ekintza zehatzak proposatzeaz gain herritar guztiak ohartaraztea eta elkarrekin egoerari buelta ematea izango litzateke egokiena,

bakoitza dagokion tokitik. Udalak erabilera hobetzera zuzendutako ekintzak babestuko ditu orain arte bezala, eta Euskara Batzordearen bidez eta Uemaren bitartez proposamenak eginen ditu.

• Egoera orokorra da; eskolan, gizartean eta familiartean. Hiru arlo hauetan eta elkarrekin aritzea da giroari buelta emateko modurik eraginkorrena. Giltza guk bagenu, oso erraza litzateke. Denon artean pentsatu eta ekin beharra dago, agian Udala honen bultzatzaile izan daiteke bere Batzordearen bidez.

• Udalak antolatzen dituen jarduera guztiak euskaraz egiten dira. Hau aspaldi hartutako erabakia da.

• Orain arte bezala, neurrietan behar diren baliabideak jarriko ditugu.

• Basaburuko Udalaren jarrera aspaldidanik bertako komunikabideak babestea da. • Jakina, harreman onak izan nahi ditugu bertako komunikabideekin. Hobetzeko tarte dagoela uste dugu, gure arteko koordinazioari dagokionez. Diruz laguntzen jarraituko dugu, eta elkarlanerako bideak aztertuko ditugu ere.

”



Imotz EH Bildu

“

- Jarraituko dugu, aurreko urteetan bezala, euskal giroa gure bailaran sustatzen.
- Ekitaldi gehienak, denak ez esatearren euskaraz egiten ditugu.
- Aurrekontua antzekoa izango da.

- Gure ekarpena berdintsua izaten jarraituko du, esan edo erran gabe doa, Amezti, Pulunpe eta Esan-Erran bultzatzen jarraituko dugu.

”



Ultzama EH Bildu

“

• Eskola esparruan euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko lan egiten da, baina umeei eta nerabeei iturri askotatik edaten dute, komunikabideak, internet, telebista, familia, eskolaz kanpoko jarduerak... Eskolak erronka handia du bere esparruan, eta Udalak baita ere. Biak bai ala bai koordinatu beharra dute ezagutza eta erabilera bultzatze helburu horri begira, bakoitzak bere esparrutik eraginez, eta zenbait kasutan edo gauzetarako Udalak eskolak dituen beharrei erantzun behar dituen zerbitzu eta baliabideak eskainiz. Ziurrenik Udaletik ekarpen handiena bereziki, eskolaz kanpoko jardueretan edo esparruetan lanketa egitea da, horrek gero bere isla izanen du eskolan ere.

• Ez da erronka txikia, eta epe laburrean emaitzak ikustea zaila da. Aisialdi eta kultur eskaintzan

sakontzea da ideia, esate baterako. Erakustea bizitza arrunterako ere baliogarri dela euskara eta euskara ezagutzea eta erabiltzeak beste mundu bat irekitzen dizula; asko erabili ohi den adibidea, baina adibidez bertsoarritza. Edo, pilota partidak euskaraz telebisatzen direlako. Komunikazio mailan ere, edo eta ateratzen diren esleipenetan, kulturarako dirulaguntzetako baldintzetan ere erabilera eskatu edo puntuatu ohi da, hurrenez hurren.


• Ultzaman, adibidez ostiraletako kultur eskaintzan euskarazko eskaintza nahiko zabala da, eta ikuspegi kualitatibotik, euskarazko ekimen txukunak antolatzen dira, hor Udalak hauek hobetzeko baliabide gehiago jartzea du helburu. Ume eta gazteei zuzendutako ekimenak, euskaraz izaten dira. Gainontzekoetan esan bezala, euskara eta gaztelerazko eskaintza antzekoa edo orekatua da.

• Esan beharra dugu, Ultzamako Udalean EHBildu dagoenetik nabarmen igo dela euskarari orokorrean bideratutako

diru kopurua. Besteak beste, Pulunperi, Euskararen Egunerako, Euskaraldirako, Liburutegian euskarazko liburuetarako, dirulaguntzen baldintzetan jartzen diren baldintza eta puntuaketei dagokionean... Eta noski, gure asmoa da norabide hori mantentzea, alegia, proposamenak eta beharrak baloratzu, beharrezkoa bada eta ahal den heinean laguntza ekonomikoa ere indartzea.

• Azken 2 legealdiotan EH Bildu Alkatetzan egonik, jarrera irekia eta eraikitzailea izan dugu. Harremanak indartzea ongi deritzogu, baina horretarako alde guztien borondateaz gain, oinarri eta helburu batzuk finkatu edo adostu behar dira. Dirulaguntza handitzea helburu horiek lortzeko behar diren zerbitzuak, proposamena eta beharrak zeintzuk diren ikusita aztertuko da, alegia, bitarteko bat gehiago izanen da ezarritako helburuak lortzeko, eta beraz, bitarteko ekonomikoa beharrezkoa bada, legealdiotan egindako moduan dirulaguntza kopurua egokituz joan beharko da.

”



Odietako Elkarte Independentea

“

• Gure haurrak hobeki ala okerrago eskolatuak dauden baloratzera sartu gabe, ez baitugu egoeraren inguruko sakoneko ezagutzarik eta eztabaida amaigabeen sartzea litzatekeelako, baina euskararen erabilera gutxitu izana errealitate bat izanik, uste dugu ezin dela udalen gain utzi egoera honen zama, baliabide ekonomiko eta material mugatuak baititugu. Testuinguru honetan, hezkuntza sistemak du zuzeneko ardura, gurasoek, eta ahal den heinean, gizarteak orokorrean.

Odieta EH Bildu

“

• Udaletik funtsean bi arlotan lana egin behar dugu. Alde batetik tresnak eman behar ditugu eskola ordutegitik kanpo euskararen erabilera bultzatzeko. Gure bailarako haur eta gazteei zuzendutako aisialdi eta kirol jarduera erakargarriak euskera eskainiz. Eta beste aldetik garrantzitsua da familiekin lan egitea, familia transmisioa sustatzeko, familiei zuzendutako programa berezien bidez.

• Teknlogiek globalizatutako testuinguru batean, zeinetan haurrek horien erabilera guztiz zabaldua duten, eta hizkuntza nagusien zama tarteko, zaila da hizkuntza gutxituek aurrera egitea.

• Udalek irismen mugatua dugu. Gure aukeren arabera, euskararen erabilera babesten dugu. Batzuek gutxi izanen da egiten duguna, beste batzuek nahikoa, eta beste batzuek, berriz, gehiegizko babesa dela pentsatuko dute.

• Odietako udalak urteak daramatza euskararen aldeko politikak bultzatzen eta gure aurrekontutik gai honetarako dirua inbertitzen. Batzuei gutxiegi dela irudituko zaie, besteei nahikoa, eta beste batzuei, berriz, gehiegizkoa. Euskararen erabilera eta ikaskuntza bultzatzen jarraituko dugu guk.

• Uste dugu orain arteko bidean ez dugula inor umezurtz utzi gai honetan. Pertzepzio subjektiboa da, noski, baina elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu guk. Aldi berean, hausnartzen dugu: komunikabideek udalerrri bakoitzaren errealitate linguistikoa ezagutzen al dute, zonaldeko herri bakoitzekoa?

”



• Euskararen erabilera kalean sustatzea funtzeskoa da. Horretarako, beharrezkoa da euskararen ikaskuntza erraztea eta hizkuntza gaitasunak lortzeko programa edo jarduera zehatzak egitea.

• Udalak baldintza berdinetan antolatzen dituen jarduera guztietan euskararen presentzia bermatu behar dugu.

• Euskararen erabilera errealitate zutabea da eta laguntza ekonomikoa emateko eta aurkezten dizkiguten proiektuak baloratzeko prest egon gara. Euskararen erabilerako udal politika guztiei zeharka eragingo dien udal ordenantza bat onartuko dugu.

• Elkarte hauek egiten duten lana estimatzen dugu eta harreman estua eta proaktiboa izan nahi dugu.

”

Hitz arrotzak eta inbasoreak (3)

Ardo frexkotik



Gaurkoan jolasturi eta jostagura nator

Inbasioa, inbasioa eta inbasioa. Ez dugu besterik! Inbasoreei kontra egin beharko diegu bai! Helburu hori dut gaur.

Aspaldixkoan beste landare inbaditzaile zikin bat ere sartu zaigu. Landarea? Landarea ez, baratze honetan hitzak ditugu hizpide eta gaurkoan irakasle eta ikasle askori entzuten diedana da: **jolastu** hitza.

Nonbait hitz magikoa da ele hori. Gurean beste zerbait da **jolastu**: hitz egin, mintzatu edo elekaturen antzekoa: **jolastu** (Imotz-Larraun) **yolastu** (Basaburua, Ultzama...), **solastu/solastatu** (Baztan) Orain hitz horien ordeztatu **jolastu** omen da. Gurea ken, kanpokoa sar. Alderdi ederra!

Baina besterik ere ekarri digu hitz honek: Euskal Herri guziko **jokatu** hitza ere zapaldu eta ordezkatu du. Arranopola! **Jokatu eta jokoa** kendu eta horien ordeztatu, kanpotik etorri zaigun **jolastu eta jolasa** onartu dituzte. Hori jende askotxok egiten du.

Nekez, okerrago egitea. Nekez? Bai, bai, oraindik okerretik okerrera ere egin daiteke. **Pilotan jolastu, fubolean jolastu...**; panpinetan, kuriketan, medikutan **jolastu**

gaizki daudenetatik, beste salto bat infernuko sutara: **futbolera, pilotara... jolastu**.

Bi hitz behar beharrezkoak, hara, atzendu, eta denen irrigarri dena sartu: **jolastu** eta kito! Pilotari profesional batek pilota partida ona **jolastu** duela esaten duenean, ez dizue irrikirik ematen? Niri amorrazioa ematen zidan. Orain irri egiten diot, irri! Pilotan profesionala izanen da baina hizketan analfabeto hutsa! **Partida jolastu?** Ederra kontua!

-Berriz ere galduko duk, bai!

Mintzatu, hitz egin, jolastu, jolas egin, solastatu, nahi duzuna, hori **hitz egitea** da; eta **hitz egitea, solastatzea, hizketatzea**, beharrezkoa da, baina ongi hitz egin behar da elkar ulertu dezagun. Orain darabilten **jolastu** eta **jolas** horiek desterratu beharrak daude betiko. Sutara botatzea beharrezkoa da.

Eta hitz egiteaz ari garenez, zer hoberik ardo frexko arin bat herriko ostatuan hartzeabaino? Edo ez zaude prest tabernara joateko? Ba, orduan, goazen gure etxera, gure haurrak **jostaketan** sukaldean ez badabiltza lasai ederrean egonen gara; hori bai, lehen-lehenik, aipatutako ardo mindu hori komunetik bera botatzea

dugu hoberena sotoan dudan ardo frexkotik pare bat baxo ardo edateko, aho gozagarri. Zer iruditzen zaizu?



Txurdan

Laburpena

1.-Pilotan, kartetan, futbolean, txapetan... jokatu egiten da (Lehia izaten baita)

2.-Medikutan, kuriketan, janariak prestatzen... jostatu egiten da. Jostaketan haurrak ibiltzen dira batez ere, baina helduak ere bai, noizbehinka.

3.-Hitz egin: jolastu, yolastu, solastu/solastatu, mintzatu, elekatu (mingaina eta adimena behar da horretarako)

Eta gauzak ongi azaltzeko ere bai, adimena behar da. Hitz nahasgarriak, sutara!

Hiztegia

Enasa: utzia, zikina.

Jolasturia: hizlari polita. Jolasuntzi beste gauza bat.

Jostagura: jostatetzeko gogo, juguetón (*Hemengoa ere bada hitz hau*)

Helburua: objetivo.

Hizpidea: tema de conversación.

Elea: hitza

Elekatu: hitz egin.

Lokuzioa

Alderdi ederra!: buen porvenir edo horrelako zerbait.

Ederra kontua!: Aurrekoaren paretsukoa.



▲ Larraintzarko pilotalekua: Honetan, zenbat pilota partida jokatu ote zituen Lajos handiak?



Gaur, kontu irringarri eta arinak

Gaur, kontu zaharrekin entsalada egiteko, kontu berri batzuk dakarzkiz. Orain gutxi entzundakoak. Karrikan, ezustean entzuten da esaldiren bat edo beste. Baita ihardukiak ere. Ondokoa zer pausutan doan eta zu zeinetan, hori da gakoa gutxiago edo gehiago entzun eta aditzeko.

Kixto, Kixto

Behin batean...horrela hasten dira kontuak. Hau ez da kontua baino, behin batean, urte asko duela eta aipatu nahi ez dudana herri batean ihoteak ziren.

Eta izaten zen bezala, mutilak hiru egunez jan-edanean leher, aspaldiko gosea -haragi gosea batez ere- berdintzen zuten. Zurruta ere ez zen falta izaten, hori bai, ardoa eta ardo egosia. Garai haietan ez zen besterik edaten, pattarrik ere ez.

I... etxean egiten zituzten garai hartan ihoteak. Gauza jakina zen, etxe hartan, etxeokandrea zela gehienbat agintzen zuena. Nortasun handikoa izaki eta gizona etxean behintzat andrearen itzalpean gehiago izaten zen aldrebes baino.

Gizona herriko kontuetan, ostatuan... bai, abarrots puska, baina etxean...

Etxeok salan bazkaltzen omen zuten mutilak eta salako leihoa zen paretan Jesusen Bihotzaren imajina tronuan izaten zen, eta parez-pareko paretan, zintzilik, etxeokandreaken fotografia.

Nagusia ere mutil artera joan gabe ezin, eta bazkal ondoren, kafea hartzerako edo bildu omen zitzairen. Broma, ziri eta zirta bazen ordura artio, gizon honen arrimuan are gehiago. Orduan ere emakume kontua atera hizpidera eta denak beren arrazoiak atera behar. Eta ezkondu bakarrak, nagusiak,



▲ Zarrantz, urrutian, oihan artean. Herri ttikienean ere egiten ziren ihoteak.

alegia, emakumeetan inork baino gehiago zekiela erakutsi behar eta, bere iritzia bota behar, eta mahitik zutitu eta hala hitz egin omen zien:

-Kixto, kixto! Atsoa domatu, domatu in bea'dik! Domatu!!!!

Eta bere andrearen fotografia aurrean ukabila goratu eta hixtiak eginez mehatxuka bezala:

-Hau e'yun potro'ona, baina ezkondu eta zortzi eun biño len domatu nin.

Denak irriz leher, kixto kixto kontu honekin. Jesusen Bihotzaren eta Etxeokandreaken ezpainetan ere zerbait nabaritu omen zen.

Zerbaitengatik gorde da jendearen oroimenean kontu hau.

Teoria bazekien etxeok nagusiak, baina praktika falta, praktikan suspentso.

Hori gertatzen da anitzetan, teoria bai baina praktikan zero.

Oharra: Nolanahi dela, gauzak bere neurrian jartzeko, idi domatzaile bikaina omen zen Kixtoka ibiltzen zen hau.



Txurdan

Hiztegia

Zirtoa: esaera txistosoa. Esaera gazduna.

Are gehiago: Aún más.

Hixtia=Histia: Hitzei indarra emateko keinuak. Edo norbaiten hizketa edo egin-moldeak imitatzeke keinuak.



Karrikan, belarriak erne!

Jendea agurtzea oso ona da, eta askotan beharrezkoa.

Gaur ostiral santu egunean, arratsalde erdian, eguzkiak gogor xamar jotzen duenean, Karlos IIIa **Etorbidera** paseora atera naiz. Bost edo sei laguneko taldea nire norabidean, eta euskaraz sumatu ditut. Bizkaiko ez dakit nongo euskara zolia eta ederrean ari dira. Nik pausua biziagoa eta aurrera pasatu diet, eta berehala damutu naiz. Jende ongi hezia bezala agurtzea niri zegokidan eta ez dut hala egin. Bai, bai, agurtzea

zegokidan niri, milagroa baita hemen, Carlos IIIa etorbidean inor euskaraz entzutea, eta **Otserrian** herriko bat ikusten duzunean betebeharreko kontua da agurtzea, hitza ematea eta elkarren ezagutza egitea.

Interesatzen ez, baina txukun ibiltzea hobe!

Media Lunan, emakume xahar elegante bat dago bankuan eserita, goitik behera zuriz jantzia, zurikara hobeki esan. Kalpar zuri-zuria, ederki orraztua, motots batean

bildurik, apain-apain. Benetan dotorea!

Ondoan jarri zaio frankoz gazteagoko emakume pertxenta bat, adiskidea nonbait. Eta honela entzun diet:

–Zein modernoa zauden! –gazteenak zaharrenari.

–Moderno? Badakizu, ez zait batere interesatzen!

Ikasbidea: Nolanahi gisa, beti txukun eta dotore ibiltzea hobe!

Foruen Plazan, eskubideak eta betebeharrak auzitan.

Foruen Plazako ondoan zen, ni paseoan, bikote baten elkar agurtzea-edo ikusi nuenean. Mutila ate erdi irekian, barnetik ari zen eta neskata kanpotik.

Gizonak diotso, gauza normala balitz bezala:

–Noiznahi eskue botatzen zidan lantokian –emakume lankide batez ari da.

–Eskue botatzen dikela? Herorrek ttuk kulpek, uzten baitiok!!! – Andregaiak, zorrotz.

Papa, a quien vas a votar?

Iruñeko aldirietan zen, senar-emazte batzuk beren neskato-mutiko kozkor pare batekin eta oraindik bost urtetan izanen zen hirugarren batekin paseoan.

Hamabi-hamahiru urteko mutikoa aitari mintzatu zaio:

–Papa, a quien vas a votar –oraindik hauteskundeetarako bi hilabete falta dela.



Iruñeko harresiak eta Katedrala Media Lunatik. ▲



Gaur, kontu irringarri eta arinak

Hiztegia

Etorbidea: Avenida

Norabidea: dirección

Otserria: Otsoen herria. Gaiztoen herria. Esaera zaharra: Atzerri, Otserri.

Zolia: hemen txintxo esan nahi du. Ahots zolia, txintxoa, alegia.

Zegokidan: tokatzen zitzaidan.

Diotso: Esaten dio (aditz trinkoa)

Aldiria: afueras

Ñabardura: matiz, detalle

Esaerak

Uzten baitiok! = uzten diok-eta

Beti pentsatu izan dut **papa** esatea erridikulua dela, nik esatekotan, ez baitut behin besterik hitz egin erdaraz nire bizi guzian aitarekin, **padre** esanen niokeen.

Eta ene baitan, bat-batean: **papa** esatea barregarria? Erridikulua? Ez, motel ez, ez duk noski erridikulua, oso oker ez ote dudan pentsatu bizi guzian, duda egin diat.

Euskaraz beti erabili izan dugu **atte**. Eta zer politagorik **atte** baino? **Aita** hobeki ote dago ba?

Orain **atte** ez da entzuten, ia inork ez du erabiltzen, neroni ere seme-alabek **aita** esaten didate.

Bai, euskararen erosioa da hau, zehaztasunek eta ñabardurek egiten baitute hizkuntza bat handia. Eta euskara, ttikitu egin dugu!

Eta horrela, paseoan-paseoan, buruko errotarriari bueltaka, jostaketan.



Txurdan



QR Pako
Aldaregiari
bertsoak

Pako Aldaregia Azpirotzen aldeko hil elizkizunak

Lau hilabete barnean hiru imoztar hil zaizkigu Ipar Ameriketara.

Apezeneko Pako Aldaregia Azpirotzen aldeko hil elizkizunak egin ziren Etxalekun, martxoaren 18an, arratsaldeko 6etan. Hemen dakarzkigu bere iloba Martin Azpirotz Aldaregiak, **Ramonen etxeakoak**, paratu eta kantuz eskainitako bertso ederrak.



Pakoren oroimenean bertsoak: (Doinua: Habanera)

Joxe izan'tzen zure aita, Bixenta amaren izena,
Hamaika senide denak, ta zu Pako hamargarrena,

Apezenea etxea, Etxalekuko altuena,
Horkoak zure sustraia, eta horkoa zure sena.
Ikullun behi eta ardi, ta borda belarrez dena,
Ta bizitzeko modu hau, zuretzat etzen onena;

Erabakia hartu eta, jokatu ziñun zuzena,
Denak atzean utzita, joatía Amerikan barrena.

Gaztea sasoitsua ta, erraxa ote zen ustea,
Lana haitz gogor egiñez, hori da egia esatea,
Hango zelai ta mendiak, Etxalekuko doblea,
Han dena baitzen haundia, biño etzen dena hobe.

Ta pasa ziren urteak, zailtasun eta nekea,
Hizkuntz berri bat ikasi, sentitzen ziñen librea,
Babesa ere ondoan, nolakoa bikotea!
Ta alaba Ana Mari, izan zen zure estalpea.

Tarteka-tarteka ere, Etxalekure eskapada,
Familia eta lagun, irria eta besarkada,
Herriko ostatun jendeak, jolasa eta patxada,
Alaitasuna e'tzen falta, umorea eta algara.
Zure heriotzaren berrik, hor bihotzean taupada,
Naiz urruti bizi ziñen, hurbil zen zure zirrara,
Gogoan izango dugu, beti zure begirada;
Ta zure illoben partetik, musu eta agur osaba.



Denda berritua eta produktuz betea, Izarpe kanpinean

Bost urte bete ditu udaberri honetan Aroztegiko (Atetz) Izarpe kanpinak. Urrutitik nahiz gertutik datozen bidaiariei guneez gain, baidarako herritarrei ere zerbitzua ematea bazen bultzatzaileen ideia hasieratik. Taberna eta jatetxeaz gain, denda ere hasieratik izan dute kanpinean, baina duela gutxi, marka handiago batera pasa eta goitik behera berritu dute denda, eskaintza zabaltzeko asmoz. Marta Gaston Izarpeko kidearekin hitz egin dugu

Izarpe kanpina ireki zenutenetik, denda zabalik izan duzue. Zein helbururekin ireki zenuten denda?

Gure asmoa hasieratik izan da baidarari eta bertako herritarrei zuzendutako denda izatea, eta ez soilik kanpineko erabiltzaileentzako. Arrazoi bategatik edo besteagatik, dena den, ez dugu guztiz lortu jendearengana iristea, ez gaituzte dendarekin lotzen. Tabernarekin eta jatetxearekin bai, baina dendarekin ez. Horregatik erabaki dugu marka indartsuago batekin irekitzea orain denda, pentsatuz agian herritarrek horrela errazago ulertuko dutela toki hau haien erosketak egiteko gunea dela. Denda berria lehengoaren toki berean dago eta espazio bera du, baina marka batekin lan egitearekin eta haien laguntzarekin, gauza gehiago dago eskaintzan.

Herritarrek erosketak hemen egitea bilatzen duzue denda handitzearekin, beraz?

Bai. Jende asko Iruñera joaten da erosketak egitera, baina hemen denetik dugu. Orain, gainera, marka berriarekin hamabostero eskaintza bereziak egiteko aukera dugu, promozioak... horrekin ere, uste dugu jendea erakartzea errazago izan daitekeela. Bestetik, marka handi batekin lanean ari gara, baina bertako ekoizleekin lanean jarraitzen dugu, hori guretzat beti izan da garrantzitsua. KM0 filosofia mantendu dugu, marka desberdinekin hitz egiterakoan hori mahai gainean jartzen genuen.

Zer eskaintzen dio baidarari horrelako denda bat edukitzeak?

Erosotasuna, nik uste. Mugitzeko beharrik izan gabe erosketak egin

ahal izatea. Bestetik, kanpina bada elkargune bat, eta, modu berean, denda ere izan daiteke. Erosketak egitera joan eta norbaitekin topo egitea, kafe bat hartzen gelditzea... gauza horiek.

Zer nolako erantzuna ari zarete izaten herritarren partetik?

Batzuetan, kanpoko jendeak gehiago baloratzen du horrelako denda bat hemen izatea bertakoak baino, badaude asteburuetan kanpinera datozenak aste osoko erosketak hemen egiten dutenak. Tira, baidarako jendea ere badago baloratzen duena eta erosketak egitera hona datorrena, baita Odietatik eta Imoztik ere. Uste dut ohitura aldaketa egitea dela gakoa, baina kostatzen da hori.

ESKANTZA

Barazki eta fruta, bertako labeen egindako ogia eta gozoak, mota guztietako haragia, izoztutako produktuak (arraina, pizzak...), hestekiak, bodega, likoreak, ardoak, garbiketako eta drogeriako produktuak, eta bertako ekoizleen produktuak.

ORDUTEGIA:

Astelehenetik ostiralera, goizeko 9:00etatik iluntzeko 20:00etara

Asteburuetan eta jaiegunetan, 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara



▲ Marta Gaston kudeatzailea, Izarpeko denda berrituan



Peio Etxeberria eta Andoni Gaskue, aurrera, pausoz pauso

Lehen mailako eta promoziozko binakako txapelketak bukatuta, bertan lehiatu diren Peio Etxeberria eta Andoni Gaskuerekin biltzeko aprobetxatu dugu. Txapelketen eta ibilbidearen azterketa egin dugu eta hurrengo erronkak zein dituzten ezagutu nahi izan dugu.

Peio Etxeberria zenoztarrak lehenengo aldia izan du binakako txapelketan, jende askoren arabera jokatzeari ez bazuen ere, kanpoan utzi baitzuten joan zen urtean. Beñat Rezusta bergararrarekin bikote, Laso eta Imazen kontra garaipenetik oso gertu izan zen eta, ondoren, Peña eta Mariezkurrenaren kontra finalerdietarako txartela galdu zuen. Etxeberria: "Hurrengo baterako partida hori izanen dut erreferentzia gisa. Garrantzitsuena pausoz pauso aurrera joatea da. Lehenengo urtea izan da, eta finalerdietan sartzea ez da posible izan, baina ateraino iritsi gara eta hori garrantzitsua da".

Andoni Gaskue, aldiz, duela urte eta erdi hasi zen profesionalean, eta promoziozko bigarren binakako txapelketa izan du. Joan zen urtean finalurrekoetara iritsi zen Victorrekin, eta, honetan, finalera, iazko txapelduna den Zabalararekin

“ **Peio Etxeberria:**
Lehen mailan
egotea, onenen
artean, oso zaila
da, eta poliki-poliki
lortzen ari naiz ”



bikote. "Aurten konfirmazioa izan da, bertan egoteko arrazoi konfirmazioa".

Bikotea osatzea, premiazkoa

Etxeberriak eta Gaskuek bikotea osatzearen garrantzia nabarmendu dute. Bergarako Beñat Rezusta izan du atzelari zenozkoak, eta, onartu duenez, zailtasunak izan dituzte hasieran: "Bikotea osatzea izan da gehien kostatu zaiguna, bion artean bikotea egitea. Hori oso garrantzitsua izaten da, eta guri kostatu zitzaigun. Lehenengo hiru partidak galdu egin genituen. Ni hasiberria nintzen, eta Beñatek (Rezustak) franko bultzatu behar izan zuen".

Gaskue Logroñoko Javier Zabalararen atzelaria izan da- joan zen urteko txapelduna, Oier Etxeberriarekin-. Kasu honetan ere atzelariak bultzatu behar izan du, minak bikotearen falta eragin baitu partida askotan. Andoni Gaskue: "Zabalak, zoritxarrez ligaxkan arazo asko izan zituen eskuetan. Hamalau partidetatik zazpitan ezin izan zuen jokatu, eta horrek pena ematen dizu. Asteburu batean bikotekide batekin, hurrengoan beste batekin, gero berarekin, gero beste batekin berriz ere. Horrek zaildu egin zuen bikote gisa aritzea, eta, beharbada, horregatik galdu genituen puntu batzuk. Gero, partida batzuk elkarrekin jokatu ondoren, bikotea egin genuen, eta berarekin oso-oso gustura aritu naiz".

Andoni Gaskue eta Peio Etxeberria ▲



Nola hasi baino garrantzitsuagoa, nola amaitu

Gaskuek Zabalorekin jokaturako txapelketan ikusi den bezala, Etxeberriak argi du garrantzitsuena amaiera dela: "Txapelketan ikasi dut garrantzitsuena ez dela nola hasten den, baizik eta nola bukatzen den; bukaeran ongi egotea da garrantzitsuena. Esate baterako, Unairen (Laso) eta Imazen kasuan ikusi da, ez dute sekulako txapelketa ere egin, baina bukaeran oso ongi aritu dira, eta finalean egoteko balio izan die. Datorren urteetarako ikasi dudan zerbait da, ez zaiola hainbeste buelta eman behar hasierakoari, eta txapelketan aurrera joan ahala tonua hartzen joatea dela garrantzitsuena".

Izan ere, txapelketa luzea da binakakoa, bereziki gogorra, Etxeberriak onartu digun bezala. Andoni Gaskueri ere hasieran kostatu zitzaion txapelketan sartzea, baina gero disfrutatu duela azaldu digu: "Hasieran kostatu zitzaigun, agian erritmo faltarengatik. Baina txapelketako erritmo hori erabat hartuta lasaiago eta sentsazio hobeekin aritu ginen kantxan.

Finalean pilota bat sartu zitzaion eskuin eskuan eta partida osoan izugarri sufritu zuela aitortu digu. 16

eta 22 galdu zuten faboritoak ziren Iker Larrazabal eta Iosu Eskirozen kontra. Egindako lanarekin pozik dela dio, hala ere, Gaskuek: "Pena handia da finalera iristea eta ezin disfrutatzea. Momentuan haserre sentitu nuen eta horregatik negar egin nuen, baina denborarekin baloratzen duzu egindako lana".

Norberaren jokoari fidela

Peio Etxeberriarendako, esan bezala, lehen mailako lehenengo binakakoa izan da. Beharbada, horregatik, disfrutatzea zaila egin zaio: "Niri hori da kostatu zaidana gehien. Disfrutatu ez dut disfrutatu, ez bainaiz ni izan eta zure buruarekin fidela ez zarenean... galduta ere, zaren bezalakoa izan bazara hori da sentsaziorik hoberena, zure lana egin duzula sentitzea. Alde horretatik ez dut disfrutatu, baina egunerokoan ere disfrutatzea oso garrantzitsua da, entrenamenduetan, bestela emaitzarik ez dator".

Horregatik, nahiz eta txapelketa batean eguneroko lana ikustea zaila den, horri eustea garrantzitsua dela uste du, "zure burua ez abandonatzea". Horrela, pozik baloratzen du bere lana eta etorkizunera begiratzen du: "Poliki-poliki hobera noa, egonkortzen ari naiz. Lehen mailan egotea, onenen

“**Andoni Gaskue: Zorionez, dena alde izan dut. Badakit momentu txarrak ere etorriko direla, eta prest egonen naiz arazoei aurre egiteko**”

artean, oso zaila da, eta poliki-poliki lortzen ari naiz. Ea hor jarraitu dezakegun". Orain buruz burukoan aritu da: "Oso pozik nago zortzi onenen arteko ligaxkan sartu ahal izan dudalako. Uste dut txapelketarik garrantzitsuena dela eta hor egon ahal izatea, onenen ondoan, oso polita da". Finalerdietan sartzeko gertu egon da, baina Ezkurdiak garaitu zuen 15 eta 22.


Dena, alde

Andoni Gaskuek, ordea, eskua osatzea du erronkarik gertukoena. Ondoren, uda ongi prestatzea izanen da lana: "Buruz burukoan egon behar nintzen hasiera batean, baina ezin izan dut, zoritxarrez. Beraz, orain, pixkanaka eskua errekuaratu eta uda prestatu behar dut, partida asko izanen baitira".

Larraitnzarko atzelariak urte eta erdi darama profesionalean eta haren azterketaren ondorio oso ona ateratu du: "Zorionez, dena alde izan dut, ez dut arazorik izan, ezta lesiorik ere, eta horrek aukera eman dit erregulartasunez entrenatzeko eta partida asko jokatzeko. Azken finean, horrela ikasten da gehien, partidak jokatzen. Beraz, dena ongi ateratu zait, pixkanaka-pixkanaka lanean hobetzen ari naiz eta kantxan ere nabaritzen dut, konfiantza gehiagorekin jokatzen dut. Badakit, dena den, momentu txarrak ere etorriko direla, eta prest egonen naiz arazo horiei aurre egiteko".



▲ Peio Etxeberria eta Elordi, Larraitnzarren, abenduaren 9an



Nork egiten ditu mendizaleak gidatzeko marka zuri-gorriak?

Martxoaren 17an, GR mendi bideak markatzen urteak daramatzaten hamar herritarri omenaldia egin zion Nafarroako Gobernuak, haien borondatezko lanaren aitortza moduan. Omendutako mendizaleen artean zegoen Leontzio Uharte igoarra ere. Mendi-bideetako marka zuri-gorrien atzean dagoen lana ezagutu nahi izan dugu Uharteren eskutik.

2006an hasi zen Leontzio Uharte gure eskualdea zeharkatzen duen GR bidea markatzen, Erripako Jose Manuel Altuna lagunarekin batera. "Mendian asko ibiltzen ginen biak, eta urte hartan Nafarroako Mendi Federazioak GRak markatzeko lana berreskuratu zuen. Biok eman genuen izena segituan", adierazi du igoarrak. Izan ere, urte hori baino lehenago, ibilbide asko markatugabe zeuden Nafarroan, edo markatuak zeuden gutxi horiek, mendizaleek beren kasa markatutakoak ziren, formalki inork antolatu gabeak.

Nafarroan mendi federazioko 200 bat bolondres aritzen dira mendi-

bideak markatzen gaur egun, eta guztia federaziotik antolatzen eta kudeatzen da. "Ikastaroak egin genituen lana nola egin behar zen ikasteko, mendian ere ibilaldi pare bat egin genituen gure zonaldea ezagutzeko, nondik eta nola

“ Uren muga markatzen du gure eskualdea zeharkatzen duen GR 12 bideak ”

markatu behar zen ikasteko...”, dio Uhartek. Gaur egun markaketak federaziotik bideratzen dituzte, eta haiek zehazten dituzte jarraibide guztiak. Esaterako, 150 metroko tartean gutxienez marka bat egin beharra da, xenda bakar eta oso argia ez den kasuetan behintzat. "Bidegurutze guztietan ere markatu behar da bihurgunea nora hartu, eta ez diren bide guztiak mozteko X markak egiten ditugu", gehitu du.

Mendi federazioak jartzen die markaketak egiteko behar duten materiala: brotxak, pinturak, motxila... eta kotxez mugitu behar izatendireneigasolina ere ordaintzen diete. "Markaketak udazkenean egitea nahi izaten dute federaziotik, garai horretan arboleak izerdi gutxiago izaten dutelako eta pintura hobeki itsasten delako", azaldu du Uhartek. 2006tik markaketak federaziotik bideratzen badira ere, gaur arteko ibilbidean, izan da momenturen bat non Nafarroako Gobernuak dirulaguntzak murriztu dituen. "2018 inguruan gobernuak laguntza kendu egin zuen, federazioak gogor kritikatu zuen eta markak kentzea ere pentsatu zen. Azkenean, jende asko dator hona mendian ibiltzera eta gobernuak horri etekina ateratzen dio, eta ez zen ulertzen nola kendu zezakeen laguntza". Azkenean, baina, lortu zuten adostasun batera heltzea, eta ez ziren markak kentzera iritsi.





GR 12, ur muga bidea

Gure eskualdetik pasatzen den GR 12 bidea da Uharte markatzen aritu dena. Hain zuzen, bide horrek uren bi isurialdeen arteko muga egiten du: mugaren alde bateko urak Kantauro isurialdera doaz, eta beste aldekoak, berriz, Mediterraneora. "Etzegarate inguruan hasten da bidea, eta Hiru Erregeen Mahaian bukatzen. Gure eskualdean, bi zati markatu ditugu: Gorostietatik Belate aldera doan GR zatia lehenik, Larremier mendiraino, eta Berueteiko Jontza menditik Gorostietarako bidea gero". Uhartek kontatzen duenez, bigarren zati horretan lan handia zegoen, aurretik oso gaizki markatua baitzegoen, eta aurreko marka asko ezabatzen aritu behar izan zen lixarekin arraspatuz.

Markaketa lanetan aritu diren hamar boluntariori omenaldia

Martxoaren 17an, Nafarroako Gobernuak mendiko markatze lanetako aitzindariei omenaldia egin zien. Hamar boluntario izan ziren guztira, 2006ko hastapen haietatik gaur arte markatze lanean ari direnak. Tartean zen Leontzio Uharte igoarra ere. Horrela kontatu du mendizaleak omenaldi

hartan bizitakoa: "Hainbeste urtez hor lanean aritzeagatik egin ziguten omenalditxo. Argazkia egin ziguten, egunkarietan atera ginen, eta oroigarri moduko bat ere eman ziguten. Belaguako aterpetxea agertzen da bertan, azpian mendiko hiru markak dituela. Behintzat, badakite gu hemen ari garela lanean, zerbait egiten ari garela, eta alde horretatik, oso pozik hartu genuen omenalditxo".

Mariano Astitz eta Dioniso Redini omenaldia

Berriki hil zaizkigu gure alderdiko bi abeltzain, Mariano Astitz Landiribar, etxalekuarra, Marimigelenekoa, eta Dionisio Redin Ariztegi,

arraiztarra, Galbarnekoka. Biak ere abeltzain bezala lehen mailakoak, azientetarako zaletasun ikaragarria zutenak. Eta biak ere nahiko gazte joan zaizkigunak, Mariano 73 urtetan hila eta Dionisio areago, 63 urte besterik ez baitzituen.

Mariano Cortesen bizi bazen ere Etxaleku zuen bihotzean (Bere alaba hemen bizi zaigu)

Mariano, AFNA (Asociación Frisona de Navarra) elkartearen sorreran buru belarri ibilitakoa genuen eta bere lehen lehendakaria. Estatu mailako elkarteko kide ere izan zen. Dionisio, aldiz, Nafarroako elkarteko batzordekidea genuen.

Eta AFNAk, bere urteroko batzarre orokorra zela-eta omendu nahi izan ditu gure alderdiko abeltzain eredu izan diren gizon hauek.

Ekitaldia Orkoiengo Andia hotolean izan zen eta ohi bezala bazkideekin batera bi familietako kideak izan ziren konbidatuak.

Bi familiei gure aldetik besarkada bat eta errekonozimendua egin lanagatik.



Ezkerretik, Afnako lehendakaria; Marianoren alarguna, Ana Carmen Garcia, lau seme-alaba, eta bere bi ahizpak eta suhia Mattin besoetan duela. Fotografia AFNAko aldizkaria.



Fanzine iletsuak, deabruaren musika eta erromatarrak

Apirilean, aurreko kolaborazioan esan genuen bezala, liburuaren eguna ospatzen da, baina hemen, liburutegian, egun guztietan dira horrelakoak, liburuaren egunak; beraz, maiatzean ere ostiral kulturaletan liburu aurkezpen bat eta liburu batekin lotutako umeendako ilustrazio tailer bat izango ditugu. Horretaz aparte, musika, margolanak... Hori guztia, eta liburu gomendioren bat ere komentatuko dizuegu liburutegiko leiho honetan.

Haurrentzako ilustrazio tailer batekin hasiko dugu hilabetea, non gaztetxoek beren fanzinea idazten eta editatzen ikasi ahal izango duten. "Fanzine iletsuak" du izena. Izen honekin nik neuk ere gustura emango nuke izena, baina jarduera 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzendutakoa da. Fertxu Izquierdo eta Irantzu Piquero izanen dira tailerraren arduradunak, eta hau da haien deialdia: "Zatoz zure pertsonaia iletsu dotorea sortzera eta zure abentura partekatu: egin ezazu fanzine zabalgarri bat!" Lanzko udaletxean maiatzaren 4an izango da tailerra. Edo izan da...

Seguru aski, lerro hauek irakurtzeko orduan tailerra pasatua izanen baita. Hala ere, aprobetxatuko dugu abagunea Fertxuk eta Irantzuk egindako liburu bati buruz idazteko. *Ordu txikietan* du izenburua, eta umei irakurtzeko liburu ezin hobea da, lotara eramateko modurik ez dagoenean. Egileek beren buruari galdetzen diote nola imajinatzen duten gaua haurrek lotara doazenean, eta protagonistak gonbidatzen gaitu marrazkiz eta ametsez betetako koadernoak, gaueko artxibo txikia ikustera. Horri esker gaua oinez pasatzen duten eta egunsentira arte gurekin doazen pertsonaia horietako batzuk ezagutuko ditugu.

Egileentzat polita zen eguneko zaratatik eta erritmo frenetikotik ihes egitea tarte batez, eta mundua barru-barrutik eta lasaia goikustea. Inspirazioa isiltasunean aurkitzea, gaueko itzal misteriosuen artean. Biek eman zioten forma istorioari, Irantzu gouachean hasi zen bere ilustrazioak marrazten eta Fertxuk ahotsa eta musika jarri zizkion kontakizunari bere testu poetiko eta gogoangarriekin. "Gauetz ere gizakiak al daude?". Laiak, Fertxuren alabak, hori galdetzen zion bere buruari, lotara joan aurretik. Ipuin hau, aldi berean, abentura bat eta gure barneko lekuetara bidaia bat da.





Kantauritik Andeetara erromatar galtzada batetik

Hurrengo ostiralean, maiatzaren 12an, kontzertu bat izanen dugu. Maiatzean bi kontzertu izango ditugu eta hau izango da lehenengoa: Kemaronte taldea, Alejandro Mercado Aseginolaza gitarra argentinarrak eta Ustaritz Betelu Rodriguez kantari euskaldunak osatua. Andeen eta Kantauriko gesalaren artean, esanahi sakonez betetako abesti propioak prestatzen dituzte, baita folklore latinoamerikarreko artisten bertsioak ere. Kontzertua Larraintzarko Bentan, 19: 00etan izango da.

Eta, hurrengo astean, berriro liburuak berreskuratuko ditugu, oraingo honetan tokiko edo, gutxienez, gure ingurukoarekin zerikusia duen gai bati buruz hitz egiteko: Nafarroa zeharkatzen zuen antzinako galtzada erromatarra. Honen zati bat hurbil igarotzen zen eta oraindik ere haren aztarnak daude, "La vía romana Tarraco-Oiasso en Navarra y otros caminos mineros" liburuak azaltzen digun bezala.

Erromatarren galtzadak erromatar lurraldearen ardatza ziren eta

komunikazio-bide modernoek oinarriak dira. Liburu hau aukeztera etorriko diren hizlariak, Juan Mari Martínez Txoperenak eta Rafael Zubiria Mujikak, Tarraco eta Oiasso (gaur egun Irun) lotzen zituen komunikazio-bide horri buruzko informazioa ematen dute haien obran. Erromatar galtzada horren Nafarroako zatia gutxien ezagutzen dena da. Hain zuzen ere, horretan oinarritzen da bere ikerketa. Aurkezpen honetan, batez ere, Arraiztik hasten den zatiari buruz hitz egingo digute eta bide hori ezagutzera gonbidatuko gaituzte.

Deabruaren musika: Petti eta Bessie Smith

Eta, hilabetea amaitzeko, beste kontzertu bat, luxuzko "bolo" bat: Petti, Berako musikaria. Bere ahots sakona eta urratua, errailetatik ateratzen den ahots hori, bere bluesaren arimaz kutsaturiko kantuak, bere gitarra jotzeko trebezia eta oholta gainean duen indar basatia nabarmenduko genituzke.

Horiek guztiak erakutsiko dizkigu Berako artista bikainak bakarkako kontzertu honetan, Larraintzarko gizarte etxean, maiatzaren 26an, 19:00etan.



Eta Pettiz eta bluesaz, hau da, deabruaren musikaz, ari garenez, liburutegira ekarri berri dugun liburu bat gomendatu nahi nuke. Liburu hori historian izan den blues abeslari inportantenetako baten biografia da, Bessie Smithena, bluesaren enperadorea deitzen ziotena. Bessie Smithen filmetako bizitza horietako bat izan zuen. 1894an jaio zen Tenessen eta oso txikia zela umezurtz geratu zen. Kanean abestuz ateratzen zuen bizitza, gero ikuskizun ibiltarien konpainia batekin elkartu eta horrela egin zen ezagun. Bere kantuetan (disco batzuk grabatu eta milaka ale saldu zituen) maitasun tragikoez hitz egiten zuen, emakumeen sufrimenduaz, berak bere haragitan pairatu zuen sufrimenduaz.

Bessi alkoholikoa izan zen (interneten bideoen batean ikus daiteke, taberna batean abesten eta kulunka), arrazismoaren biktima... Hil zen egunean, adibidez, ekaitz baten erdian auto istripu bat izan ondoren, ospitale batetik baino

gehiagotatik pasatu zen eta ez zuten artatu nahi izan, beltza zelako, odolusten utziz. Bessie, azken batean, bluesaren kondaira bat izan zen, ondoren Janis Joplin bezalako artistak inspiratu zituen. Izan ere, Janis Joplinek Bessie Smithentzat hilobi bat erosi zuen, Bessie, bere ospearen gorabeheretan, pobre hil zelako, eta ezin izan zutelako duintasunez lurperatu. Horri guztiari buruz mintzo zaigu "Bessie Smith" izeneko biografia honen egilea, Jacki Kay idazle eskoziarra, liburu honetan biografia, saiakera eta poesia nahasten dituen.

Bukatzeke, ezin dugu ahaztu hilabete honetako erakusketa aipatzea: "PASANDO EL RATO/DENBORA-PASAN. Era desberdinetako akrilikoak dira eta kale artisten bertsioak. Egileak ez du bere izena azaldu nahi izan, beraz, Banksyren -edo Banksy "txikito"-ren koadroren bat topatuko ote dugu? Batek daki...

 **Patxi Irurzun,**
Ultzamako liburutaina

2023ko martxoa

2023ko martxoan gure alderdian izan diren jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak

Jaiotzak:

Guk dakigula, martxoan ez zen jaiotzarik izan.

Ezkontzak:

ATETZ Beratsain

Luis Corral Cárdenas, Iruñekoa, eta Mari Ollo Alkasena Beratsaingo **Karakoetxekoa**, martxoaren 4an ezkondu ziren.



Luis eta Mari. Topa! ▲

Heriotzak:

ANUE Etsain

Tomasa Oiartzun Gelbentzu, **Xiltoneko** etxeakoandrea, martxoaren 25ean hil zen, 93 urtetan..

“ Zuen maitasuna,
gelditzen zaiguna. ”

ULTZAMA Auza

Tomasa Goñi Telletxea, **Lataxan-etxeko** etxeakoandrea, martxoaren 2an hil zen, 96 urtetan.



▲ Tomasa Oiartzun



▲ Tomasa Oiartzun, gaztetan



▲ Tomasa Goñi

MANTENTZE - LANAK · INSTALAZIOAK · KONPONKETAK · ARGI PUBLIKOAK
PROYEKTUAK · AURREKONTUAK · BOLETINAK ETA ZIURTAGIRIAK

KARRIKOLAR
ELEKTRIZITATEA



629 31 53 32 · 722 766 835

LIZASO · karrikolaregoitz@gmail.com

**GOTELET-A
KENTZEA**

**FATXADAK
ZAHARBERRITZEA**

**IRAGAZGAITEA
(IMPERMEABILIZACIONES)**

DAVID ELIZONDO PINTURAK
DEKORAZIO ETA INDUSTRIA PINTURA

**KALITATEA
ETA
GARBITASUNA**

**AURREKONTUA
KONPROMEZURIK GABE**

678623866

ZIAURRITZ · argapin@hotmail.com



